



Antsoaingo Udalaren Adierazpen Institutuzionala Ekainaren 28aren harira, Sexu Askatasunen eta LGBTBI+ Harrotasunaren Eguna dela eta

Ekainaren 28a ez da data huts bat. Memoria, borroka eta duintasun eguna da. 1969an, New Yorkeko Stonewalleko istiluak gogora ekartzen ditugu; egun hartan, pertsona trans, lesbiana eta gay askok isiltasunaren eta errepresioaren aurka egin zuten, eta bide emankorra ireki zuten gaur egun oraindik ere mundu osoan zehar jarraitzen dugun aldarrikapenaren alde. Oroitzeko eguna da, ospatzeko, baina batez ere, eraldatzen jarraitzeko.

Antsoainen, eraldaketa hori “Makusi” LGBTBI+ diagnostikoaren bidez hartu du forma. Ariketa kolektibo honek gure herriko LGBTBI+ pertsonen errealtateak, erronkak eta behar sozialak entzun, aztertu eta aitortu ditu. Diagnostiko hau izan da Udalaren konpromisoa jasotzen duen tresna estrategikoa den **Antsoaingo LGBTBI+ Plana** garatzeko abiapuntua, data sinbolikoetatik harago doan konpromisoa.

Badakigu adierazpenek bakarrik ez dutela nahikoa. Horregatik, plan hau neurri egiturazkoetan gauzatzen da, kultura, hezkuntza, osasuna, kirola edo enplegua bezalako eremuak zeharkatuz. Antsoain anitz eta inklusibo bat eraikitzea borondate politikoa, baliabideak eta herritarren inplikazioa eskatzen du. Ausardia eta jarraikortasuna ere behar dira, aurrean ditugun erronkei aurre egiteko eta egindako aurrerapausoak sendotzeko.

Bide horretan, ekainaren 28an ospatzen dugun **“Antsoain armairutik ateratzen da”** ekitaldia ikusgarritasunerako, parte-hartzerako eta topaketarako espazio bihurtzen da. Herritar guztiei irekitako jardunaldi honek proposamen kultural, aldarrikatzaile eta ospakizun-giroko bat biltzen du, gure herrian aniztasuna gero eta gehiago ikusarazteko urratsak ematen jarraitzeko. Antsoainen, aniztasuna ez da ezkutatu behar: pixkanaka-pixkanaka espazio publikoa eta aitortza kolektiboa irabazi behar ditu.

Hori guztia dela eta, Antsoaingo Udaletik adierazi nahi dugu:

1. LGBTBI+ mugimenduaren borroka gizarte-justiziaren eta giza eskubideen aldeko funtsezko kausatzat hartzen dugula.
2. Berdintasunarekiko dugun konpromiso instituzionala berritzen dugula, LGBTBifobiaren aurka jendaurrean eta era partekatuan lan eginez.
3. Udaletik lan egiten dugula Antsoain sexu- eta genero-aniztasuna espazio publikoan eta komunitate-bizitzan presente dagoen udalerrri izan dadin, eta pertsona guztiek askatasunez eta diskriminaziorik gabe bizitzeko aukera izan dezaten.

4. Herritar guztiei irekitako espazio eskuragarriak sortzen jarraitu nahi dugula, gero eta pertsona gehiagok beren burua errealitate anitzez osatutako ingurune justu baten eraikuntzan parte-hartzaile sentitu dezaten.
5. Sexu- eta genero-aniztasuna herritarrengana hurbiltzearen alde egiten dugula, identitate anitzen adierazpena, ezagutza eta parte-hartzea sustatzen duten kultura-, hezkuntza- eta gizarte-proposamenen bidez.

Gaur, Antsoainen armairutik ateratzea sexu eta genero aniztasuna espazio publikoan ikusarazteko urratsak egitea eta pertsona guztien eskubideak aitortzea da. Pixkanaka-pixkanaka, gizarte irekiago eta berdinzaleago batera aurrera egitea da.

Declaración Institucional del Ayuntamiento de Ansoáin con motivo del 28 de junio, Día de las Libertades Sexuales y el Orgullo LGTBI+

El 28 de junio no es una fecha cualquiera. Es memoria, lucha y dignidad. Es el día en que recordamos los disturbios de Stonewall en 1969, cuando personas trans, lesbianas y gais se enfrentaron a la represión y al silencio, abriendo un camino de reivindicación que hoy seguimos recorriendo en todo el mundo. Es un día para recordar, para celebrar y, sobre todo, para seguir transformando.

En Ansoáin, esta transformación ha tomado forma a través de un proceso participativo que ha culminado en el **diagnóstico LGTBI+ “Makusi”**, un ejercicio colectivo de escucha, análisis y reconocimiento de las realidades, retos y necesidades de las personas LGTBI+ en nuestro municipio. Este diagnóstico ha sido el punto de partida para la elaboración del **Plan LGTBI+ de Ansoáin**, una herramienta estratégica que recoge el compromiso de este Ayuntamiento con la igualdad real y la diversidad, más allá de las fechas conmemorativas.

Sabemos que no basta con declaraciones. Por eso, este plan se concreta en medidas estructurales que atraviesan áreas como la cultura, la educación, la salud, el deporte o el empleo. Porque construir una Ansoáin diversa e inclusiva requiere voluntad política, recursos y participación ciudadana. Requiere, también, valentía para afrontar las resistencias y continuidad para consolidar los avances.

En este camino, el evento **“Ansoáin sale del armario”**, que celebramos con motivo del 28 de junio, se convierte en un espacio de visibilidad, participación y encuentro. Una jornada abierta a la ciudadanía, con una propuesta cultural, festiva y reivindicativa, que busca seguir dando pasos para hacer visible la diversidad en nuestro municipio. En Ansoáin, queremos que la diversidad no se esconda, sino que poco a poco vaya ocupando el lugar que le corresponde: el espacio público y el reconocimiento colectivo.

Por todo ello, desde el Ayuntamiento de Ansoáin queremos manifestar:

1. Que reconocemos la lucha del movimiento LGTBI+ como una causa esencial de justicia social y de defensa de los derechos humanos.
2. Que renovamos nuestro compromiso institucional con la igualdad, combatiendo todas las formas de LGTBIfobia desde lo público y desde lo común.
3. Que desde el Ayuntamiento trabajamos para que Ansoáin sea un municipio donde la diversidad sexual y de género esté presente en el espacio público y en la vida comunitaria, y donde todas las personas puedan vivir con libertad y sin discriminación.
4. Que queremos seguir generando espacios accesibles y abiertos a toda la ciudadanía, para que cada vez más personas se impliquen en la construcción de un entorno más justo y consciente de las distintas realidades.
5. Que apostamos por acercar la diversidad sexual y de género a la ciudadanía a través de propuestas culturales, educativas y sociales que fomenten el conocimiento, la participación y la expresión de identidades diversas.

Hoy, salir del armario en Ansoáin significa dar pasos para visibilizar la diversidad en el espacio público y reconocer los derechos de todas las personas. Significa avanzar, poco a poco, hacia una sociedad más abierta e igualitaria.